



## ANDOAIN LABURREAN bideo lehiaketak aurten bere zazpigarren edizioa ospatuko du

- **16-28 urte arteko gazte ez-profesionalei zuzendutako lehiaketa da, euskarazko bideo laburra entregatzeko azken eguna urtarrilaren 28a izango da.**
- **Gaia librea izango da, baina Anjel Lertxundiren “Herriminaren prosak” izeneko liburua agertu beharko da, elementu garrantzitsu edo zeharkako gisa**
- **Lehen saria 500 €koa izango da, bigarren saria 300 €koa. Aurten “ikuslearen saria” ipiniko da martxa, eta publikoak [www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus) web orrialdearen bidez bozkatzeko aukera izango du**

Andoaingo Udalak Zine eta Bideo Eskolarekin (ESCIVI) batera antolatzen duen lehiaketa honek, zazpi urte betetzen ditu 2021-2022 ko edizio honetan. Urte hauetan zehar argi geratu da aurkezturiko lanen mailan emandako hobekuntza eta gazteen parte hartzeko interesa. Ainhoa Aiertzak, ESCIViko ordezkariak, eta Alexander Huitzik, euskara zinegotziak, agerraldia egin dute lehiaketaren inguruko xehetasunak emateko.

Aiertzak azpimarratu duenez “urtero antolatzen den lehiaketa honek, ikus-entzunezko munduan mugitzen diren gazteen artean interes handia sustatzen du”. Aurten 16-28 urte bitarteko gazte ez-profesionalek hartu ahal izango dute parte, eta bideo laburra osatzerakoan gai librea izango dute.

Huitziren ustez “ahalegin honek euskarazko ingurune bat sortzea du helburu”. Honakoa azaldu du: “ikus-entzunezko munduan euskara bezalako hizkuntza txikien presentzia handiagoa sustatu nahi den honetan, ANDOAIN LABURREAN bezalako lehiaketa euskaraz sortzeko eta kontsumitzeko apustua da”. Izan ere, oinarrietan agertzen den moduan bideo laburrean hizkuntza eduki guztiak euskaraz izan beharko dira.

Oraingo edizio honek berrikuntza bat dakar gainera; Andoaingo Udaleko Euskara sailak argitaratu berri duen Anjel Lertxundiren “Herriminaren prosak” izeneko liburua nonbait agertu behar da, istorioaren elementu garrantzitsu edo zeharkako elementu gisa. Bestalde, lanek lehiaketa honetarako bereziki sortuak izan behar dute. Aurkezten diren bideoek 2021eko otsailaren 1etik 2022ko urtarrilaren 28ra bitartean errodatuak behar dute izan, originalak, eta argitaratu gabeak. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.

VII. ANDOAIN LABURREAN edizioko sarien diru kopuruak igo egin dira, lehenengo saria 500 eurokoa izango da, eta bigarren saria 300 eurokoa. Bestalde, sari berri bat sortzen da, “ikuslearen saria” deiturikoa. Ikusleek [www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus) webgunean bozkatu ahal izango dute bere bideo laburrik gogokoena, **otsailaren 5etik 13ra**, eta boto gehien jasotzen duen bideoaren egileak Bastero Kulturguneko zinemarako bi bazkidetza bono eskuratuko ditu.

Lanak aurkezteko **azken eguna urtarrilaren 28a** da. Lanak aurkezteko datu pertsonalekin bete <https://labur.eus/andoainlaburrean> estekan dagoen formularioan, eta, jarraian, *My Air Bridge* ([www.myairbridge.com](http://www.myairbridge.com)) bidez bidali bideoak [euskarazerbitzua@andoain.eus](mailto:euskarazerbitzua@andoain.eus) postara, **.mov** edo **.mp4** formatuetan. Sari banaketa 2022ko Otsailak 17 izango da Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00tan.